

Gradu Amaierako Lana / Trabajo Fin de Grado
Medikuntzako Gradua / Grado en medicina

**Giltzurrun emaileen eboluzioaren azterketa datu
analitiko eta subjektiboetan oinarrituta/
Análisis de la evolución de donantes de riñón en base a
datos analíticos y subjetivos**

Egilea /Autor:
Xabier Zumeta Galarraga
Zuzendaria / Director/a:
Amagoia Celayeta Zamacona

© 2021, Xabier Zumeta Galarraga

ABSTRACT-A

Sarrera: giltzurrun donazioa gero eta prozedura ohikoagoa da. Hartzailearentzat emaile hilaren donazioak baino abantaila nabariagoak erakutsi baditu ere, emaile biziaren giltzurrun donazioa emailearen morbiditate arriskuaren areagotze arinarekin erlazionatu da. Egungo giltzurrun donazio kopuruaren gorakadak arrisku horiek definitu eta kuantifikatzea eskatzen du, prozeduraren ondorio, abantaila eta arriskuak zehazteko.

Helburua: ikerketa honen helburua giltzurrun emaile bizien epe labur zein luzeko eboluzioa aztertzea izan da. Datu medikoak ez ezik, bizi-kalitate eta bizi-ohiturei dagozkien alderdiak ikertu dira, baita prozeduraren inguruan duten gogobetetze maila aztertu ere.

Materialak eta metodoak: Donostia Unibertsitate Ospitalean azken 40 urteetan (1981-2020) jarraitu diren giltzurrun emaileen atzeranzko kohorte ikerketa burutu da. Horretarako, donazioaren aurreko zein ondorengo parametro mediko, kliniko, analitiko, antropometriko zein psikosozialak bildu dira.

Datuok biltzeko Osabide Global plataforma eta elkarrizketa telefonikoak erabili dira.

Emaitzak: 60 giltzurrun emaile ikertu dira guztira, 56 (47,5-62) urteko adin medianarekin eta bataz besteko 8 ($\pm 6,37$) urteko jarraipen denborarekin. Operazio ondorengo batez besteko ospitaleratze denbora 4,51 ($\pm 1,62$) egunekoa izan zen, emaileen %18,2ak garatu zuelarik konplikazioen bat (guztiak konplikazio arinak).

Batez besteko kreatinina mailak egonkor mantendu ziren. Kirurgiatik 6 hilabetetara 1,18 ($\pm 0,25$) mg/dl-koak ziren eta 10 urtetara 0,97 ($\pm 0,21$) mg/dl-raino jaitsi ziren. Bestalde, %66,66ak garatu zuen giltzurrun funtzioaren gutxiagotze arina 6 hilabetera, 10 urtera %37,5k zuelarik. Emaile bakarrak garatu zuen giltzurrun gutxiegitasun kronikoa, proteinuria garatu zuen bakarra ere izan zelarik. Bestetik, hipertentsioaren intzidentzia %9,1tik %23,2ra igo zela ikusi zen, desberdintasun esanguratsua deskribatuz ($p=0,001$).

Emaileen %44,5ek dietaren bat jarraitzen du gaur egun eta %51,9ak ariketa fisiko erregularra egiten du.

SF-36 galdetegiaren bitartez elkarrizketatutako 52 pazienteen %90ek osasun egoera ona, oso ona edo bikaina duela uste du, %87,5ek bere osasun egoera populazio orokorrarena bezain ona dela uste duelarik. Gainera, horietatik %100ak adierazi du donazioa errepikatuko lukeela.

Ondorioak: emaile bizien giltzurrun donazioa prozesu segurua da eta ez du kalte nabaririk eragiten emaileen osasun egoeran, baldin eta emailearen azterketa sakon eta egokia burutzen bada. Epe ertain zein luzera bizitza guztiz normala egiteko gai dira emaileak. Hala ere, beharrezkoa da emaileei egiten zaizkien jarraipen programak sustatzea, ager litezkeen konplikazioen detekzio goiztiarra lortzeko eta epe oso luzerako eboluzioaren aspektuak argitzeko.

HITZ GAKOAK

Giltzurrun transplantea, giltzurrun emaile bizia, giltzurrun donazioa, arriskuak, onurak, giltzurrun gutxiegitasuna, hipertentsio arteriala, proteinuria, kreatinina.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1. Giltzurrun transplantearen historia.....	1
1.2. Giltzurrun transplantearen epidemiologia.....	1
1.3. Giltzurrun emaile biziaren eta hilaren arteko konparaketa	3
1.4. Giltzurrun emaile biziaren prestaketa	5
1.4.1. Bateragarritasunaren azterketa	5
1.4.2. Hautagaiaren azterketa medikoa	6
1.4.3. Hautagaiaren azterketa psikologikoa	8
1.4.4. Donazio gurutzatuak	9
1.5. Giltzurrun donazioaren arriskuak.....	10
1.5.1. Epe laburreko konplikazioak	11
1.5.2. Epe luzeko konplikazioak	12
1.5.2.1. Hipertentsio arteriala.....	12
1.5.2.2. Proteinuria	13
1.5.2.3. Giltzurrun funtzioa.....	14
1.5.2.4. Hilkortasuna	15
1.5.2.5. Ondorio psikologikoak.....	17
2. HELBURUAK	18
3. MATERIALAK ETA METODOAK.....	18
4. EMAITZAK.....	19
4.1. Datu epidemiologikoak	19
4.2. Kirurgia eta jarraipena.....	20
4.3. Epe laburreko konplikazioak.....	23
4.4. Epe luzeko konplikazioak	23
4.4.1. Tentsio arterialaren bilakaera.....	23
4.4.2. Proteinuriaren jarraipena	25
4.4.3. Giltzurrun funtzioaren eboluzioa	25
4.4.4. Hilkortasuna	27
4.4.5. Bestelako asaldura medikoak	27
4.5. Gaur egungo egoera psikologikoa eta bizi estiloa.....	28
5. EZTABAIDA	30
6. ONDORIOAK	33
7. BIBLIOGRAFIA	35
8. ERANSKINAK.....	40

1. SARRERA

1.1. GILTZURRUN TRANSPLANTEAREN HISTORIA

Giltzurrun transplanteen historia saiakera eta hutsegite sekuentzia moduan hasi zen, XX. mende hasieran animalien arteko lehen transplantea lortu zen arte. 1902an Emrich Ullmann kirurgialari austriarrak zakurren arteko lehen transplantea burutu zuen, egun gutxi batzuk iraun zuena (1).

Gizakien arteko lehen giltzurrun transplantea Yurii Voronoy kirurgialari sobietarrak egin zuen 1933. urtean. Emaile hiletik eginiko transplante haren hartzaila 2 egunetara hil zen, organoa inoiz ez zelarik funtzionatzera iritsi. Jean Hamburger izan zen emaille hiletik eginiko lehen transplante arrakastatsuen egilea, Parisen 1953. urtean (1).

Emaile bizien arteko lehen transplantea Bostonen bete zen 1954. urtean. Joseph Murray kirurgialariak 1990ko medikuntzako Nobel saria irabazi zuen (Edward Donall Thomas hematologo eta onkologoarekin batera) biki monozigotikoen arteko lehen giltzurrun transplantea burutzeagatik, organoak 8 urte biziraun zuelarik. 8 urte beranduago izan zen, 1962an, lehen giltzurrun alotransplantea (1).


Hastapenetatik hona, etengabe eboluzionatuz, garatuz eta hobetuz joan den prozedura da giltzurrun transplantea. Jakintza, baliabide eta teknika kirurgiko hobetuei eta bestelako tratamenduei esker, hartzailen immunogutxitzea kasu, emaitza gero eta hobeak eskaintzen dituen prozesua da gaur egun, datozen urteotan ere gero eta garrantzia gehiago hartzeko itxura duena (1).

1.2. GILTZURRUN TRANSPLANTEAREN EPIDEMIOLOGIA

Azken urteetako gorako joerari jarraituz, mundu mailan burututako organo transplante kopurua etengabe gorantza doa, %6ko igoera izan zuelarik 2019an, 146.840ra iritsi arte. Deigarria da ikustea nola transplante horietatik guztietatik 95.479 (%65,02) giltzurrunekoak izan ziren, biriketakoekin batera kopuruz gehien hazi direnak. Gainera, prozedura motaren inguruan, bizirik dagoen emaillearen donazio (BE-Tx) portzentaia ere gorantzako joeran dago, transplante nefrologiko guztietatik %36 suposatu baitzuen epe horretan (2).

Europar Batasuneko datuei dagokienez, mundu mailakoen antzeko joera daukatela ikus daiteke. Transplante kopuru globalaren igoera ez ezik (2), giltzurrun transplanteen gorakada nabaria antzematen da, burutu ziren 34.221 transplanteetatik 21.227 (%62,02) izan baitziren giltzurrunekoak (3). BE-Tx-ak guztien %19 izan ziren (2).

Espainiar estatu mailan ere esan genezake antzeko joera dela egun bizi duguna. Azken 3 hamarkadetan %312 igo da transplante kopurua eta, azken datuen arabera, 2019an estatu mailan burutu ziren 5.449 transplanteetatik 3.423 (%62,81) izan ziren giltzurrunekoak. Kasu horretan, emaile biziaren proportzioa baxuagoa den arren (%10,84), pisu gero eta altuagoa hartzen doa urteen poderioz, 16tik 335era igo delarik emaile biziaren kopuru totala azken 30 urteotan (**1. Irudia**) (4).



1. Irudia. Giltzurrun emaile bizi kopurua Espainiar estatuan 1991-2019 (4).

Euskal Autonomia Erkidegoko datuen inguruan, 2019. urtean burututako 265 organo transplanteetatik, 169 (161 helduenak eta 8 pediatrikoak) Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean eginiko giltzurrun transplanteak (%63,77) izan ziren, zeintzuetatik 18 (%10,65) izan ziren emaile bizietatik burutuak (4).

Datuok aztertuta, nabaria da organo transplanteen kopuru totala ez ezik, BE-Tx-en kopuru absolutu eta portzentaia pisua hartzen doazela egungo gizarte medikoan. Aldaketa horrek susmarazi lezake era horretako prozeduren aldeko joera boluntario dagoela gaur egun, hilik dagoen emailearen donaziotik (HE-Tx) lehenesten dituztenak.

1.3. GILTZURRUN EMAILE BIZIAREN ETA HILAREN ARTEKO KONPARAKETA

Gaur egun, komunitate medikoan onartua dago BE-Tx-ek abantaila ugari eskaintzen dituztela HE-Tx-en aurrean. Abantaila klinikoek ez ezik, giltzurrun transplanteen eskarien gorakadak guztiz behartzen gaitu emaile biziak lortzeko sustapen programak bultzatzera, pisua hartzen doazen arren eskaintza guztiz asetzetik urrun baitago oraindik (2,5).

Edozein prozedura kirurgikotan bezala, transplantea modu programatuan burutzeak baliabideak optimizatu ahal izatea errazten du, itxaron zerrendetan eta dialisian igarotako denbora murriztuz gainera. Azken alderdi hori garrantzitsua da pazienteen pronostikoan, dialisiaren beraren ohiko konplikazioak (kardiobaskularrak edo sarbide baskularrarekin zein kateter peritonealarekin lotutako infekzioak kasu) (6,7) saihestez gain; 6 hilabetetik gorako dialisiak mentuaren porrota pairatzeko arrisku areagotuarekin erlazionatu baitira (8). Prozedura denbora gehiagorekin aurre-programatzeak, bestalde, prestakuntza landuago eta egokiago bat dakar pazientearentzat, bateragarritasuna zehaztasun gehiagorekin azertu ahal delarik eta hartzailearen terapia immunodepresorea lehenago hasi, errefusa aukerak murriztuz. Orokorrean, emaile biziari egiten zaion azterketa emaile hilari egiten zaiona baino askoz sakonagoa denez, prozedurak eskaintzen duen kalitate bermea altuagoa da.

Epe labur zein luzera deskribatu dira BE-Tx-en onurak emaile bizi eta hilen arteko transplanteak alderatzean. Iskemia hotzeko denboraren luzatzea da adibide argienetariko bat. Iskemia hotzeko denbora deritzo giltzurruna emailearen gorputzetik atera eta kontserbazio-soluzioa ezartzen zaionetik hartzailearen zirkulazio sistemarekin anastomosatuz birperfunditzen den uneraino igarotzen den denborari. Bitarte horretan, hipoxia egoerak metabolismo anaerobioa bultzatzen du zeluletan, horien apoptosi eta nekrosia eraginez. Heriotza zelular horrek eta birperfusio uanean gertatzen den metabolitoen zabaltzeak giltzurrunaren kaltetzea dakarte. Hori horrela,

BE-Tx-etan iskemia hotzeko denbora gehienez 1,5 ordukoa den bitartean, hildako emaleetatik giltzurruna erauzi eta kudeatzeak iskemia hotzeko denbora luzeagoa suposatzen du, HE-Tx arrisku faktore moduan deskribatu delarik mentuaren funtzio atzeratua gertatzeko, bereziki epe hori 16-18 ordutik gorakoa denean (9–11).

Gainera, organismoa garun heriotzan sartzeak ere arazoak sortzen ditu HE-Tx-etan. Estres egoera horretan gertatzen diren fenomenoek kalte ugari eragiten dituzte giltzurrunetan, bestelako organoetan bezalaxe. Zitokina askapen zabalaren bidezko hantura erreakzio orokortua gertatzen da besteak beste, baita hipotalamo-hipofisi ardatzaren asaldurengatik diabetes geza fenomeno ere. Horiek, garun edemak eragiten duen katekolaminen jariaketagatik basouzkurketa eta kalte endotelialarekin batera, giltzurrunaren degradazioa eragiten dute, bere funtzionaltasuna kaltetu eta errefus akutu zein epe luzerakorako arriskua areagotuz (12).

Infekzioak jasateko arrisku faktore moduan ere definitu da kirurgia HE-Tx izatea. Ikusi da iskemia hotzeko denbora luzatzeak eta giltzurrunaren kontserbazioan sortu litezkeen arazoek, hartzaiaren immunitate sisteman alterazioak sortuz, HE-Tx arrisku faktore bihurtzen dutela infekzioen garapenerako (13).

Epe luzera, mentuaren funtzio atzeraturako arrisku altuagoa ez ezik, HE-Tx-ak bai injertuaren bai pazientearen biziraute tasa baxuagoak ere badituela ikusi da (**2. Irudia**) (14,15). Epe luzeko errefusa tasa altuagoak eta kreatininaren argitze okerragoak ere deskribatu dira kasuotan (16).

	Trasplante renal con donante fallecido	Trasplante renal con donante vivo	Trasplante simultáneo renopancreático
<i>Supervivencia Injerto</i>			
1 año	93	96	95
5 años	85	90	90
10 años	70	80	77
<i>Supervivencia del Paciente</i>			
1 año	96	98	96
5 años	87	90	88
10 años	72	80	75

2. Irudia. Mentuaren eta hartzaiaren biziraupena HE-Tx, BE-Tx eta tranplante renopancreatikoan (17).

Azkenik, batez besteko biziraupen tasa hobeez eta konplikazio tasa baxuagoz gain, kostu eta kostu-eraginkortasun azterketek erakutsi dute kirurgiarako prestakuntzen eta aurreko zaintzen, kirurgiaren eta 10 urte geroagoko kontrol eta prozeduren kostu ekonomiko totala %15 merkeagoa izatera irits daitekeela BE-Tx-etan, HE-Tx-ekin alderatuz (17).

1.4. GILTZURRUN EMAILE BIZIAREN PRESTAKETA

Beste edozein organorekin bezala, giltzurrun emaile hautagaiak aurretiazko aukeraketa, ikerketa eta prestaketa prozesu zorrotz bat jasan beharra daukate, aspektu desberdin asko barnean hartzen dituenak.

1.4.1. Bateragarritasunaren azterketa

Ezer baino lehen, funtsezkoa da emaile-hautagaiaren eta pazientearen arteko bateragarritasuna aztertzea. Lehenik eta behin, AB0 odol taldeen bateragarritasuna baieztatzen da, froga gutxienez bi aldiz burutzea indikatzen delarik akatsak murrizteko. Froga horren emaitzak bateragarritasun eza adierazten duen kasuetan, derrigorrezkoa da hautagaiari donazio gurutzatuen inguruko informazio osoa eskaintzea. AB0 frogan emaitza egokia den kasuetan, bestalde, eman beharreko hurrengo pausua HLA bateragarritasun froga da, froga serologiko edo DNAn oinarritutako metodo molekular bidez burutua (18,19).

AB0 bateragarritasunaren alderdiari buruz, ikusi da 0 taldeko pazienteek antigorputz bidezko errefusa pairatzeko aukera gehiago dutela, bai A bai B taldekoek baino anti-B eta anti-A antigorputz titulazio altuagoak dituztelako (20). Hartzailea 0 odol taldekoa izatea arrisku faktore kontsideratzen da mentuaren narriadura goiztiarrarentzat (21).

Rh antigenoen ebaluazioa ez da beharrezko jotzen gaur egungo ebaluazio programa eta protokoloetan eta ez da burutzen (18).

Giza antigeno leukozitarioak (Human Leukocyt Antigen, HLA) funtsezko elementuak dira giza organismoaren immunitate sisteman, zelula propioen eta arrotzen arteko bereizketaren ardatz nagusietakoak direlarik. Antigenoak histobateragarritasun konplexu nagusi deritzen gene taldeen bidez transmititzen dira, 6. kromosomaren beso

laburrean kodetzen direnak. Alelo ezberdinak daude, HLA azpitalde desberdinak sortzen dituztenak. Hartzaiaren immunitate sistemak beretzat arrotza den HLA azpitalde bat detektatzen badu mentuan, bateraezintasun egoera baten aurrean egongo ginateke (19).

Pazientearen eta hautagaiaren odol laginetako HLA azpitalde desberdinen presentziaren arabera zehazten da frogaren emaitza, gaur egun bateragarritasuna zehazten duten azpitaldeak HLA-A, HLA-B eta HLA-DR direlarik. Zenbait gidak eta profesionalek froga horren balioa zalantzan jartzen dute eta hautagai bat baino gehiago dauden kasuetan bakarrik aholkatzen dute. Hala ere, prestaketa eta pazientearen immunodepresio oker batek antigorputz bidezko errefusa arriskua areagotzen du HLA ez-bateragarriak diren kasuetan (18,19).

1.4.2. Hautagaiaren azterketa medikoa

Behin bateragarritasun frogak gaindituta, hautagaiaren egoera ikertu beharko da, bere osasun egoera orokorra eta giltzurrunaren funtzionaltasuna eta egitura egokiak direla baieztatzeko eta kirurgia eta ondorengo prozesua jasateko gai izango den baloratzeko. Garrantzitsua izango da emailea ondo aztertzea donazioak kalterik egingo ez diola ziurtatzeko (18).

Emaile izateko zenbait kontraindikazio definitu dira, eremu geografikoaren eta entitate kudeatzailearen arabera alda daitezkeenak (18,22). Kontraindikazio absolutuen kasuan, hautagaiaren historia klinikoan edota azterketa fisiko zein froga diagnostikoetan topatuko balira, prozedura ezeztatuko litzateke. Kontraindikazio absolutuen adibide lirateke 18 urtetik beherakoa izatea, legalki erabakiak hartzeko ezgaitua egotea edota diabetes mellitusa pairatzea (**3. Irudia**).

Klasikoki minbizi aktibo edo guztiz tratatu gabeak kontraindikazio absolutu moduan definitu diren arren, azken urteotako zenbait ikerketek erakutsi dute, kasu konkretu eta kontrolatuetan, tratatuak dauden eta denbora definitu batean errezidibarik aurkeztu ez duten emaileen giltzurrunak transplantatu daitezkeela, baldin eta benetan tumore arrastorik ez dagoela frogatzen bada. Tumorea hartzaiari transmititzea izango da saihestu beharreko arrisku nagusia. Kasu bakoitza banaka aztertuz, tumoreen sailkapena egiten da neoplasia motaren arabera (23–26).

Absolute Contraindications	Relative Contraindications
Age <18 yr	Age 18–21 yr
Mentally incapable of making informed decision	Creatinine clearance <2 SD below mean for age
Uncontrolled hypertension or hypertension with end organ damage	Hypertension in non-Caucasian race
Diabetes	Hypertension in young donor
BMI >35	Prediabetes in young donor
Active malignancy or incompletely treated malignancy	BMI >30
Untreated psychiatric conditions	Microalbuminuria or proteinuria
Nephrolithiasis with high likelihood of recurrence	Bleeding disorder
Evidence of donor coercion	History of thrombosis or embolism
Persistent infection	Nephrolithiasis
	History of malignancy, especially if metastatic
	Significant cardiovascular disease

3. Irudia. Giltzurrun emaile izateko kontraindikazioak (61).

Kontraindikazio erlatiboak aurkezten dituzten hautagaien kasuan, beharrezkoa izango da horiek modu egokian diagnostikatu eta tratatzea transplantea burutu aurretik (27). Kontraindikazio erlatiboen adibide liraterke hematuria (kausa topatzea eta horren arabera arriskua definitzea eskatzen duena), nefrolitiasia edota haurdunaldia.

Ofizialki kontraindikazio moduan deskribatzen ez den arren, adina ere kontraindikazio moduan hartu izan dute zenbait profesional medikok emaileak hautatzeko orduan, 50 urtetan ezarri izan delarik emaile izateko muga (18). Hala ere, ikerketa klasikoagoetan emaileen adin aurreratua epe luzerako pronostiko txarragoarekin erlazionatu den arren (28), gaur egungo datuen arabera adina ez da prozeduraren emaitza okerragoekin lotzen (29).

Behin kontraindikazioak baztertuta, azterketa oso luze eta sakona egiten zaio emaileari (2. eranskina). Besteak beste, guztiz funtsezkoa izango da honako parametro hauek aztertea: tentsio arteriala zifra normaletan dagoela baieztatzea, arrisku faktore kardiobaskularrak, odol-analisi orokorra, 24 ordutako gernua eta proteinuria, egungo egoera kardiobaskularra eta, emailea eta hartzaila senitartekoak diren kasuetan, emaileak duen gaixotasunaren azterketa genetikoa, heredagarria izateko susmoa baldin badago (30).

Bestalde, garrantzitsua izango da bai giltzurrunaren tamaina eta morfologia zehaztea bai giltzurrun litiasirik ez dagoela baieztatzea. Gainera, teknika kirurgikoagatik, odol hodien azterketa sakona ere beharrezkoa da. Emailearen giltzurrun arteria hartzailearen arteria iliakoarekin anastomosatzen da; beraz, komenigarria da odol hodien egoera egokia dela frogatzea eta normaltasunaren aldaerak baztertzea. Horretarako, oso baliagarri eta garrantzitsuak dira giltzurrun ekografia eta kontraste bidezko eskanerra (30).

Azkenik, iragazketa-glomerular tasaren mugako baloreak dituzten hautagaietan edo zalantzazko baloreak dituztenetan, giltzurrun gammagrafia egiten da giltzurrun bakoitzaren funtzioa ezagutzeko (30).

1.4.3. Hautagaiaren azterketa psikologikoa

Ebaluazioa osatzeko, ezinbestekoa da hautagaia psikologo edo psikiatra batek aztertzea (31). Osasun mentalaren esparruko profesionalek hautagaiaren egoera orokorra baloratu behar dute, bere ulermen mailaz ziurtatuz, ezinbestekoa baita bai hautagaiak bai pazienteak prozedura kirurgikoaren, prestakuntzaren eta ondorengo neurri eta jarraipenaren nondik norakoak eta arriskuak ulertu eta bere kabuz konprentitu ahal izatea. Gainera, oinarri etikoei jarraituz, hautagaiaren ulermen gaitasuna ez ezik motibazioen inguruan galdetu behar zaio, donazioa burutzeko derrigorrezkoa baita emailea borondatezkoa izatea, ez hirugarren pertsonen presio, bortxa edo xantaiak bultzatua edo, orokorrean, beste inoren eraginagatik behartua (18).

Historia psikiatrikoa ere kontsultatu beharra dago, kirurgiaren ondorengo osaketa zaildu lezaketen asaldura psikiatrikoak baztertzeko. Horretarako, emailearen ingurugiro psikosoziala ere ikertu behar da, egoera sozial egonkorra duela egiaztatu ahal izateko (18).

Toxikoen kontsumoa kontraindikazio kontsideratzen ez den arren, hautagaiaren ohiturak ikertzea ezinbestekoa da, egungo alkohol, tabako edo bestelako drogen kontsumo zein adikzioak eta iraganean izandakoak erregistratu eta, behar izatekotan, tratatzeko (18).

Baloraziootan emaileetan depresio tasa altuagoak deskribatu diren arren (32), ez da ikusi emaile-hautagaiek asaldura hori pairatzeko joera altuagoa dutenik populazio

orokorrarekin alderatuta (32,33). Emaileaz eta bere egoeraz arduratuago aurkezten diren hautagaien artean antsietate tasa apur bat altuagoak deskribatu ohi diren arren, ez da ikusi ohiko populazioak baino antsietate maila edo proportzio altuagoan erakutsi dutenik, garrantzitsua den arren hasiera batean asaldura psikiatrikorik erakusten ez duten emaile hauen jarraipen psikiatrikoa burutzea, prozesuak aurrera egin ahala gara litezkeen asaldurak aurreikusi eta azkar diagnostikatu eta tratatzeko (32,33).

1.4.4. Donazio gurutzatuak

Aurretik aipatu den moduan, emaile beharra gero eta handiagoa da eta paziente nefrologikoen transplanterako denbora eta dialisi denbora luzatzeak pronostikoa asko okertzen du. Egoera horretan, pazienteak bateragarria den bolondresik ez badu, aholkatzen den metodoa donazio gurutzatuena da (34).


Emaile-hautagaien heren bat inguru ez da bateragarria bere hartzaile potentzialarekin (35). Proportzio horiek ikusirik, ahalegin handiak egin dira emaile gurutzatuen programak sortzeko, gero eta metodo ohikoagoa bihurtzen ari delarik, eskaria guztiz asetzetik urrun gauden arren oraindik (34).

Donazio gurutzatu mota desberdinak dauzkagu. Guztietan sinpleena eta ohikoena bi bikoteko trukea deritzona da. Horretan, bateragarritasun arazoak dituzten bi paziente-emaile bikote edo gehiago gurutzatzen dira, bikote bakoitzeko pazienteak beste bikoteko emailearen giltzurruna jasoko duelarik (36).

Horren aldaera konplexuena domino erako donazio gurutzatuena da. Horietan, emaile ez-zuzenaren kontzeptua ageri da, hartzaile zehatz bat esleitu gabeko emaileak, emaile altruistak izan ohi direnak. Emaile horren giltzurruna bateragarritasun arazoak dituen paziente bati ematen zaio eta, trukean, paziente horren hasiera bateko emaileak beste paziente bati ematen dio bere giltzurruna, prozesu hori errepikatzearen poderioz kateak osatzen direlarik, domino efektu erakoak, arik eta azken emaileak emailek ez daukan paziente bati donazioa egin eta emaile hilen itxaron zerrendatik ateratzen duen arte (36).

Azken emaile horrek emaile hilen itxaronzerrendan dagoen pazienteari donazioa egin ordez, bateragarritasun arazoak dituen bikote berri bat agertu arte zain geratzen bada, “bridge”, “zubi” edo “lotailu” deritzona bilakatzen da (**4. Irudia**). Zubi horiek gai dira

talde edo kate berriak martxan jartzeko. Kate horietako kirurgia berri horiek ez-aldibereko deritzenak dira (36).



4. Irudia. Giltzurrun donazio gurutzatueta "bridge"-ak (36).

Truke sareon garapen eta zabalkuntza garatzen doazen heinean, gaur egun giltzurrunen garraioa gero eta garrantzi gehiago hartzen ari den alderdia da. Erakunde eta egitasmo desberdinen koordinazioaren bitartez, bateragarritasunaren azterketa gero eta zabalagoa da, garapen teknologikoaren bidez bateragarritasun frogak distantziara egin eta puntu geografiko anitzetako emaile eta hartzaile desberdinak batzea lortu nahi delarik. Iskemia hotzaren denbora murrizteko neurriak funtsezkoak izango dira garraio horien kalitatea ahalik eta hobereena izan dadin eta, horrela, emaileen sarea gero eta zabalagoa (36).

1.5. GILTZURRUN DONAZIOAREN ARRISKUAK

Giltzurrun donazioaren segurtasuna baloratzeko orduan, asko dira ikertu beharreko aspektuak. Kontuan hartu behar dira emaileen bai epe motzeko bai epe luzeko

konplikazioak, emailearen jarraipen fisiko zein psikologikoa ere funtsezkoak izango direlarik.

1.5.1. Epe laburreko konplikazioak

Ebakuntzarekin edo ospitaleko ingresuarekin harremandu daitezkeen arriskuak izango dira epe motzeko konplikazioak. Giltzurrun emaileak epe motzeko konplikazioen bat izateko estimatu den arriskua %16,8koa da, deskribatu diren konplikazio perioperatorio ohikoenak honakoak direlarik: hemorragia, ileoa, pneumotoraxa, pneumonia, gernu bideko infekzioa, zauriaren konplikazioak, sakoneko tronbosi benosoa birika enbolismoarekin edo gabe eta baita heriotza ere (5,37).

Arrisku faktore ugari definitu dira konplikazio hauetarikoren bat edo gehiago pairatzeko, besteak beste, emailearen ezaugarri demografikoak eta etnikoak, aurretiko egoera klinikoa, prozedura kirurgikoaren teknika eta zentroaren ezaugarriak. AEBn eginiko 2015eko ikerketa nazional batean, esate baterako, arraza afroamerikarreko emaileen konplikazioak pairatzeko arriskua kaukasiarrekoena baino %26 altuagoa zela ikusi zen. Gainera, emaile horien konplikazio larriak izateko arriskua %56 altuagoa zela ere ikusi zen. Hala ere, datu orokorrak neurtuta, konplikazio perioperatoriak izan zituzten emaileak %16,8 izan ziren, %3,7k izan zituelarik konplikazio larriak. Konplikazio ohikoenak gastrointestinalak eta hemorragikoak izan ziren (37).

Erabilitako teknika kirurgikoaren inguruan, desberdintasun kontrajarriak deskribatu dira. Nefrektomia laparoskopiko bitartez operaturiko emaileek min postoperatorio gutxiago pairatzen dituztela ikusi da eta operazio ondorengo egonaldi ospitalarioa motzagoa dela nefrektomia irekiarekin operatutakoen aldean, baita lanera itzultzeko denbora gutxiago behar dutela ere. Bestalde, nefrektomia ireki bidez operaturiko emaileetan berriz operatzera behartu zuten eta behartu ez zuten konplikazioen tasa 2 edo 3 aldiz baxuagoa dela ikusi da ikerketa batean (38). Teknika minimoki inbasibo desberdinen artean ez da desberdintasun kliniko poskirurgiko esanguratsurik sumatu (39).

Hilkortasun perioperatorio (bai intraoperatorio bai postoperatorio) tasa oso baxuak erregistratu dira emaileetan, %0,2tik beherakoak kontsultatutako iturri guztien arabera. (5,37,39–41).

1.5.2. Epe luzeko konplikazioak

Epe luzean giltzurrun bakarrarekin bizitzearekin harremandu diren arriskuak honakoak dira: hipertentsio arteriala, proteinuria, giltzurrun funtzioaren okertzea, hilkortasuna eta ondorio psikologikoak.

1.5.2.1. Hipertentsio arteriala

Klasikoki, giltzurrun emaile izatea estuki erlazionatu da hipertentsio arteriala pairatzeko arriskuarekin. Hala ere, metaanalisietan ikusi da ez dagoela harremanik giltzurrun masa gutxitua izatearen eta hipertentsio arterialaren artean. Hala ere, bai ikusi dela tentsio arterial sistolikoak gorantzako joera arin bat duela emaileotan, igoera arinak erregistratu direlarik jarraipen hamarkada bakoitzeko. Tentsio diastolikoaren kasuan ere ikusi da baduela igotzeko joera arina, sistolikoaren moduko epe-luzerako gorantzako joera kronikorik nabari ez den arren (42).

Beste metaanalisi batean tentsio arterial sistoliko eta diastolikoren igoeraren estimazioa burutu zen. 10 urteko jarraipenaren ostean, tentsio arterialaren batz besteko igoera 5 mmHgkoa izan zen kontrolekin alderatuz. Tentsio arterial sistolikoaren batz besteko igoera 6 mmHgkoa izan zen, eta diastolikoarena 4 mmHgkoa. Bestalde, hipertentsio arterialaren intzidentziaren igoera erregistratu zen metaanalisi horretan bertan, baina ezin izan zen arrisku faktore moduan definitu, ez zelako emaileen eta kontrol taldeen arteko intzidentzien artean desberdintasun esanguratsurik ikusi (43).

Tentsio arterialaren igoerarentzat eta hipertentsio arterialarentzat arrisku faktore ugari deskribatu dira. Faktore pronostikotzat onartu dira adin aurreratua donazioaren momentuan (60 urtetik gora), gizonezkoa izatea, donazio aurreko presio arterial altuagoa, gainpisua eta donazio aurreko glomerulu-iragazketa tasa baxua izatea. Bestalde, arrisku faktore potentzial moduan kontsideratu dira hipertentsio arterialaren historia familiarra izatea eta arraza beltzekoa izatea, arraza txurikoa izatearekiko. Ez da donazio aurreko kolesterol eta azido uriko maila altuen eta hipertentsioaren arteko korrelaziorik ikusi (43).

Azken urteotan, emailearen arrazaren garrantzia azpimarratu da hipertentsio arterialaren testuinguruan. Errebisio batean ikusi zen arraza beltzeko emaileek %52ko

arrisku erlatibo gehitua zutela tentsio arterialaren igoera pairatzeko, arraza txurikoekin alderatuz; eta %31 altuagoa hipertentsio arteriala garatzeko. Errebisio ugaritan ikusi dira desberdintasun hauek, arraza beltza hipertentsio arteriala pairatzeko arrisku faktore izendatu delarik giltzurrun emaileetan. Badirudi beharrezkoa izango dela aspektu hau etorkizunean gehiago ikertzea, arraza beltzeko emaileek jasan ditzaketen konplikazioen jarraipen espezifikoa egiteko eta haien segurtasuna bermatzeko (44–47).

1.5.2.2. Proteinuria


Giltzurrun masa murriztua izatea proteinuriaren agerpen edo igoerarekin erlazionatu da. Giltzurrun emaileen kasuan, heren batek inguruk proteinuria arina garatzen duela ikusi da ($<0,5$ g/24 h), epe luzeko jarraipenean proteinuriaren intzidentzia beste kausengatiko pazienteetan (giltzurrun agenesia, traumatismoak etab.) baino gehiago jaisten delarik (42).

Beste errebisio sistematiko batean emaitza oso anitzak erregistratu ziren, 7 urteko batz besteko jarraipenarekin, ikerketetako batzuetan %20tik gorako proteinuriaren intzidentzia ikusi zelarik eta %5etik beherakoa beste batzuetan. %12ko proteinuriaren intzidentzia pilatua zehaztu zen. Bestalde, giltzurrun emaileen eta populazio orokorraren proteinuria mailen arteko konparazioa burutu zen, adinagatikoa soilik izan litekeen edo ez aztertzeke. Batz bestea, 66 mg/eguneko aldea zegoen emaileen eta adin bereko kontrolen proteinuria mailen artean (48).

Albuminuriaren kasuan, 3698 emaile biltzen zituen beste errebisio sistematiko batean estuki harremandu ziren kirurgia ondorengo jarraipen denbora eta albuminuria, intzidentzia igotzen zela ikusi zelarik jarraipen urte bakoitzeko. Sexu maskulinoa arrisku faktore moduan definitu zen, intzidentzia tasa esanguratsuki baxuagoak antzeman baitziren emakumeen artean. Orokorrean, aztertutako emaileen artean, 3 eta 45 urte bitarteko jarraipenekin, %87,3ak aurkeztu zuen albuminuria negatiboa, %11,5ek mikroalbuminuria (proteinuria arina) eta %1,2ak makroalbuminuria (49).

1.5.2.3. Giltzurrun funtzioa

Giltzurrun baten erazketak giltzurrun funtzioa murrizten du epe laburrean. Ondoren, mekanismo konpentsatorioak aktibatzen dira funtzio berreskuratzeko, zenbait egilek efektu horren hasiera nefrektomia ondorengo 8 ordutan ezarri duelarik. Gaitasun hori erdira murrizten da emaile zahar edo/eta obesoetan. 2012an Belgikan egindako errebisio sistematiko batean, 1.145 giltzurrun emaile barneratzen zituen, funtzioaren berreskurapena aztertu zen, 10-14 egunetara nefrektomia aurreko glomerulu-iragazketa tasaren %66-70koa zelarik eta 7-8 hilabetera %74-85 bitartekoa (**5. Irudia**). Epe luzera, ohiko populazioak jasaten zuen adinagatiko iragazketan jaitsiera erritmo berdina erregistratu zen (50).



5. Irudia. Glomerulu-iragazketa tasaren eboluzioa giltzurrun donazioaren ondoren (49)

AEBko errebisio sistematiko batean kreatina plasmaticoaren igoera arina erregistratu zen giltzurrun bakarreko pazienteetan. Donazioaren momentuko adin zaharragoa kreatinina seriko maila altuagoarekin erlazionatu zen. Bestalde, ez zen ikusi donazio ondorengo denborak kreatinina mailarekin harremanik zuenik, igoera gradualik

ematen ez zela iradokiz. Orokorrean, iragazpen-glomerularren tasaren jaistea giltzurrun masaren murriztearekin erlazionatu zen, adin eta generoarekin bezala (42).

Dohaintza eta giltzurrun gutxiegitasun kronikoa garatzeko arriskua aztertu direnean emaitzak adierazgarriak ziren. 2014an Norwegian eginiko ikerketa batean bataz besteko 15,1 urteko jarraipeneko 1901 giltzurrun emaileko lagin bat eta 24,9 urteko jarraipeneko 32621 emaile-hautagaiko (emaile izan ahal zuten pertsona osasuntsuak) lagin bat alderatu ziren. Emaileetatik 9k garatu zuten giltzurrun gaixotasun kroniko terminala (%0,47), denak hartzailearen familiakoak. Kontrol taldean, bestalde, 22 pertsonak garatu zuten giltzurrun gaixotasun kronikoa (%0,07). Guztira, beraz, giltzurrun gaixotasun kroniko terminalaren intzidentzia gordina 302 paziente/miloi 1 biztanle-urtekoa izan zen, Norvegiako ohiko intzidentzia 100 paziente/miloi 1 biztanle-urtekoa zelarik. Giltzurrun gaixotasun kroniko terminala jasateko arrisku ratioa 11,38koa zela kalkulatu zen giltzurrun emaileen artean (51).

2016an metaanlisi baten emaitzak bildu ziren, 4.933.314 partaide batu zirelarik. Giltzurrun gaixotasun kroniko terminala pairatzeko zuten arriskua estimatu zen, eta ondoren 15 urterako egin ziren proiektzioak 52.998 giltzurrun emailetan erregistratutako arriskuarekin alderatu. Aspektu demografiko eta etnikoengatikoa gaixotasuna pairatzeko arrisku desberdinak ikusi ziren azpitalde desberdinetan. Arriskua areagotzen zuten faktore mediko nagusiak honakoak izan ziren: iragazketa-glomerularren tasa baxua, albuminuria altua, hipertentsioa, erretzailea edo erretzaile ohia izatea, diabetes mellitus eta obesitatea. Orokorrean, 15 urtetara giltzurrun gaixotasun kroniko terminala pairatzeko arriskua 3,5-5,3 bitartean altuagoa zen giltzurrun emaileen artean. Hala ere, azpitalde guztietan arrisku tasa baxuak erregistratu ziren. Esaterako, gizon beltzetan %0,97koa zela ikusi zen eta emakume zurietan %0,15koa (52).


1.5.2.4. Hilkortasuna

Ez dago ebidentzia argirik giltzurrun emaileek populazio orokorrak baino epe luzerako hilkortasun tasa altuagoa dutela adierazten duenik. Kontsultatutako errebisioen arabera, hilkortasun tasak antzekoak dira bi taldeetan (49,50,53–55).

430 emaile barneratzen zituen errebisio batean, emaileetan populazio orokorrean

estimatutakoa baino biziraupen tasa hobea ikusi zen 5 urtetara, %4 altuagoa izan zelarik. 20 urtetara biziraupena %85ekoa zen emaileetan, populazio orokorrean esperotakoa %66 zelarik. Biziraupena %19 hobea zen beraz emaileetan. Hildakoen heriotza arrazoi ohikoenak populazio orokorrarenen berdinak ziren, gaixotasun kardiobaskularrak eta minbizia izanik arruntenak (56).

2010eko ikerketa batean giltzurrun emaileen hilkortasuna aztertu zen 80.347 emaile eta 9.364 boluntario osasuntsu alderatuz, batz besteko 6,3 urteko jarraipen denborarekin (**6. Irudia**). Epe laburreko mortalitate altuagoa ikusi zen arren giltzurrun emaileetan, epe luzera berdindu egiten zen edo, are gehiago, baxuagoa zela ikusi zen emaileetan. 5 urtetara %0,4ko hilkortasuna ikusi zen emaileen artean eta %0,9koa boluntarioetan, 12 urtetara %1,5 eta %2,9koak zirelarik urrenez urren (53).



6. Irudia. Giltzurrun emaileen mortalitatea kontrolekin alderatua, genero eta arrazaz kategorizatua (53).

1.901 emaile eta 32.621 emaile-hautagai alderatu zituen 2014ko beste ikerketa batean ikusi zenaren arabera, bestalde, 15,1 urteko batez besteko jarraipenarekin, %11,78eko hilkortasuna erregistratu zen emaileen artean eta %7,43koa hautagaietan (51).

1.5.2.5. Ondorio psikologikoak

Orokorrean emaileen kirurgia ondorengo bizi kalitatearen pertzepzioa ona dela ikusi da eta giltzurruna eman izanaren damua erakutsi dutenak oso gutxi direla (5).

203 emaile aztertu zituen ikerketa multizentriko batean “SF-36”, “15D” eta “Feeling Thermometer” eskalak erabili ziren bizi kalitatea aztertzeko. Beraien puntuazioak populazio orokorraren oso antzekoak izan ziren aspektu guztietan, desberdintasun esanguratsurik gabe. Ez zen desberdintasunik ikusi laparoskopia bidez operaturiko emaileen eta kirurgia ireki bidez operaturikoen artean. Beraien giltzurruna jaso zuten pazienteek eboluzio txarra izanda ere, azpitalde horretako emaileetan ere emaitzak oso antzekoak izan ziren (57).

Bestalde, donaziotik 3 hilabetera psikologo edo psikiatra batengana jotakoen eta farmako psikotropikoak hartutako bai emaileen bai kontrolen ehunekoak oso antzekoak ziren. Azkenik, emaileen gogobetetze-maila aztertzean emaileen %90ak adierazi zuen donazioaren inguruko arrisku eta onurei buruzko informazio egokia jaso zutela eta guztien %97ak esan zuen berriz egoera berean egotekotan giltzurruna emateko erabakia errepikatuko lukeela (57).

2455 emaile barnean hartzen zituen AEBko ikerketa batean ikusi zen emaileen bizi-kalitate eskalen puntuazioen %80-87 artean populazio orokorrarenak bezain onak edo hobeak zirela (58).

2018an AEBn egindako kohorte ikerketa batean, emaileen antsietate, depresio eta damua aztertu ziren batez besteko 6 urteko jarraipen denborarekin. %5,5ek garatu zuen antsietatea, tasa baxuagoa zelarik emakumeen artean, genero bietan populazio orokorraren antzekoa izanik. %4,2ak zeukan depresioa, populazio orokorraren antzera, eta donazioaz damututakoen ehunekoa %2,1ekoa zen. Ez zen korrelaziorik ikusi damuaren eta depresio edo antsietatearen artean; depresio eta antsietatearen arteko korrelazio ertaina erregistratu zen arren (59).

Azkenik, 2012ko errebisio batean, ikusi zen, depresioak giltzurrun emaileetan populazio orokorrean baino intzidentzia baxuagoa bazuen ere, hartzailearen porrot klinikoak faktore aurreikuslea zela emaileen depresiorako emaile ez-zuzenetan, arrisku erlatiboa 2-3 aldiz handiagotzen zuelarik. Hartzailearen heriotzak emailearen depresiorako arrisku erlatiboa %123 areagotzen zuela ikusi zen (60).

2. HELBURUAK

Lan honen helburua giltzurrun emaile bizien eboluzioa aztertzea da, bai epe motz bai luzean. Eboluzio eta konplikazio kliniko posibleak aztertzeaz gainera, beraien bizi kalitatearen eta egoera psikologikoaren nondik norakoak aztertu nahi izan dira, prozedura kirurgikoaren eta aurreko zein ondorengo prozesuen inguruan duten gogobetetze-maila ezagutzeko.

3. MATERIALAK ETA METODOAK

Donostia Unibertsitate Ospitalean azken 40 urtetan aztertu diren giltzurrun emaile biziak ikertu dira, atzera begirako kohorte ikerketa bidez. Giltzurrun ematearen aurreko eta ondorengo parametro antropometriko, analitiko, kliniko, sozial eta psikologikoak ikertu dira.

Informazio hori lortzeko, beraien historia klinikoak aztertu dira Osabide Global plataformaren bitartez. Gaur egungo bizi ohiturei eta egoera psikologiko eta emozionalari dagozkien datuak SF-36 osasun galdetegia erabiliz eta bizi-estiloari buruzko beste zenbait galderaren bitartez lortu dira, elkarrizketa telefoniko bidez.

Datuen analisi estatistikoa burutzeko SPSS Statistics 23 programa informatikoa erabili da. Batez besteko datuak alderatzeko t-Student froga parekatua erabili da eta ehuneko datuak alderatzeko STATA programa informatikoa.

Errebisio bibliografiko zabala burutu da UpToDate eta PubMed bilatzaileetan, honakoak izan direlarik hitz gakoak: “kidney donor”, “living kidney donor”, “kidney donor evaluation”, “kidney donor complications”, “kidney donor mortality”, “kidney donor hypertension”, “kidney donor renal function”, “kidney donor evaluation”, “risks of living kidney donation”, “living donor transplant” eta “paired kidney donation”. Datu epidemiologikoak lortzeko Espainiako Osasun Ministerioaren,

“Organización Nacional de Trasplantes”en eta “Global Observatory on Donation and Transplantation”en web orrietara jo da.

4. EMAITZAK

4.1. DATU EPIDEMIOLOGIKOAK

1981 eta 2020 urte bitartean Donostia Unibertsitate Ospitalean jarraitu diren 60 giltzurrun emaileak aztertu dira. Donazio momentuko adina 56 (47,5-62) urtekoa zen eta batez besteko jarraipen denbora 8 ($\pm 6,37$) urtekoa da. Sexu distribuzioari dagokionez, %56,7 ziren emakumeak eta %43,3 gizonezkoak. Emaileen artean odol talde ohikoena 0+ zen (%35), B- eta B+ taldeko emailek ez zegoelarik. Pazienteekiko zuten harremanaren kasuan, bi talde nagusienak hartzaileen anai edo arrebak (%36,7) eta bikoteak (%33,3) ziren. Emaileen ikasketa mailari buruz, gehienak unibertsitate ikasketak burututakoak ziren (%33,3) (**1. Taula**).

Donazio aurreko osasun egoerari buruz, batz besteko tentsio arterial sistolikoa 122 ($\pm 13,42$) mmHgkoa zen eta diastolikoa 74 ($\pm 9,15$) mmHgkoa, hipertentsio arteriala emaileen %9,1k zeukalarik. %38,6k zuen dislipemia diagnostikaturik, eta proteinuria 102 (76-150) mg/24hkoa zen. Gernuko kreatininaren batez besteko balioa 0,8 ($\pm 0,17$) mg/dl zen (**2. Taula**).

ADINA	56 urte	
SEXUA	Emakumeak	% 55.7
	Gizonezkoak	% 43.3
ODOL TALDEA	0+	% 35
	A+	% 21.7
	O-	% 11.7
	A-	% 8.3
	Daturik ez	% 23,3
PAZIENTEAREKIKO HARREMANA	Anaia/arreba	% 36.7
	Bikotea	% 33.3
	Ama	% 16.7
	Aita	% 11.7
	Osaba/izeba	% 1.7
IKASKETA MOTAK	Oinarrizko ikasketak	% 27.8
	Batxilergoa	% 18.5
	Lanbide heziketa	% 18.5
	Unibertsitate ikasketak	% 33.3
	Analfabetoa	% 1.9


1. Taula. Giltzurrun emaileen datu epidemiologikoak.

	Donazioa baino lehen	Gaur egun	
KREATININA PLASMATIKOA	0.81 mg/dl	1,1 mg/dl	p=0,000
KREATININAREN ARGITZEA 24 ORDUTAKO GERNUAN	115 ml/min		
PROTEINURIA 24 ORDUTAKO GERNUAN	123 mg/dl		
TENTSIO ARTERIAL SISTOLIKOA	122 mmHg	118 mmHg	p=0,05
TENTSIO ARTERIAL DIASTOLIKOA	74 mmHg	71 mmHg	p=0,23
GORPUTZ MASA INDIZEA	25.97	25,79	p=0,51
